

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Euskaraz Bizitzeko Egonaldiak: 545 ikasle lehen txandan

Martxan da Hezkuntza Departamentuak Nafarroako A, B eta D ereduetako ikastetxeei ingurune euskaldun batean ikasteko eta gozatzeko aukera eskaintzen dien Egonaldiak programaren udazkeneko txanda

Ostirala, 2018.eko urriak 5

Lehen txandarako eskaera egin zuten 545 ikasleak badoaz eta udaberriko bigarren txandan joan nahi dutenek eskaera egiteko aukera izanen dute. Urriarekin batera hasi dira 2018-19 ikasturteko Euskaraz Bizitzeko Egonaldiak Arantza eta Beintzako aterpeetan. Deialdiak harrera ona izan du ikastetxeetan eta, abendura bitarte, 545 ikaslek parte hartuko dute hizkuntza-murgiltze programa honetan. Nabarmentzekoa da A ereduko ikastetxeen erantzuna: udazkeneko egonaldietan parte hartuko duten 14 ikastetxeetatik zazpi D eredukoak dira eta beste horrenbeste A eredukoak.



Esclavas del Sagrado Corazón ikastetxeko ikasleak Beintzako frontoian, urriaren lehenean.

Esaterako, udazkeneko lehen egonaldian Esclavas del Sagrado Corazón ikastetxeko ikasleek hartu dute Beintzako Orbela aterpean. Astelehenaz geroztik, bertako euskalkiaz eta bizimoduaz gozaten ari dira Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako 32 ikasle. Udazkeneko azken egonaldian, berriz, Pedro de Atarrabiako DBHko 84 ikaslek parte hartuko dute, abenduaren 10etik 14ra bitarte. Guztira bost edo hiru eguneko hamalau egonaldi egingen dira udazkenean.

Udaberrian ere segida izanen dute Euskaraz Bizitzeko Egonaldiek; ikastetxeek urtea amaitu baino lehen jasoko dute udaberriko txandetan izena emateko deialdia. Murgiltze programan parte hartzeko, 20 ikasleko taldeak behar dira, gutxienez; ikasle gutxiago dituzten ikastetxeek inguruko beste batzuekin batera aurkez dezakete eskaera txanda elkarrekin egiteko.

Programa honen bidez, Arantza eta Beintza-Labaien herri euskaldunetan euskaraz bizi eta gozatzeko aukera eskaintzen die Hezkuntza Departamentuak Nafarroako ikastetxeetako ikasleei. Hizkuntza-murgiltze programa denez, lehentasuna dute bost eguneko egonaldiak eskatzen dituzten ikastetxeek, nahiz eta hiru egunekoak ere onartu.

Eskaintza Lehen Hezkuntzako 3. ikasmaitatik DBHko 4.era bitarteko ikasleei zuzenduta dago, A, B eta D ereduetan, ikastetxe publiko nahiz itaunduetan. Programaren xedea ikasleen ahozketasuna lantzea eta jakin-mina akuilatzea da, kultur transmisioak pisu handia baitu programa honetan. Nafarroako ikasle gehienak inguru erdaldunetan bizi direnez, jaioterrian ez dituzten bizipenak eskaintzen dizkiete era honetako egonaldiek; esate baterako, bertako euskalkia herriko hiztunen eta hezitzaileen ahotan entzutea, edo taloak nola egiten diren ikastea. *Kontrabandistak* izeneko dinamikaren bidez, ikasleak euren artean euskaraz mintza daitezzen lortzen dute hezitzaileek, euskararen erabilera ez ezik irakaskuntza kooperatiboa ere sustatuz.